

ESK-K berriz ere Tubos Reunidos-ek gaixotasunagatiko bajan dauden langileei egiten ari dien jazarpena salatu nahi du

Azkenaldian ohikoa da TRGko Zuzendaritzak absentismoa kriminalizatzeko politika egitea. Enpresak bere baliabideak baditu ere (enpresako medikua, prebentzio-zerbitzua eta mutualitatea) gaixotasun arruntagatiko bajan dauden pertsonen jarraipena egiteko, TRGko Zuzendaritzak kanpoko enpresa bat (TEBEX) kontratatzea erabaki du. Enpresa horrek aldi baterako ezintasun-egoeran dauden langile guztiak gaizkile gisa tratatzen ditu, haien helburu bakarra enpresari iruzur egitea izango balitz bezala.

TEBEXek, TRGk xede horretarako azpikontratatuak enpresak, **etengabeko presio- eta mehatxulana egiten du**, alta-prozesua bizkortzeko eta, derrigortzearen bidez, langileei ez dagokien osasun-informazioa (proba medikoak, diagnostikoak, txosten medikoak, eta abar) lortzeko helburu bakarrarekin, gaixotasun arruntagatiko bajei buruzkoa.

Hertsapena TEBEXekin lankidetzan ez aritzeko txosten bat igortzeko mehatxuarekin gertatzen da, eta txosten hori automatikoki helarazten zaio TRGko Giza Baliabideen Burutzari.

Hortik aurrera, **Giza Baliabideen Zuzendaritzak hertsapen hori bultzatzen du eta mehatxuak gauzatzen ditu**, langileei aldi baterako ezintasunagatiko osagarri ekonomikoak kenduz.

Gure ustez, hitzarmenaren negoziazioaren ondorioz, TRGko eta TEBEXeko Zuzendaritzak kontu handiagoz jokatu dute, baina argi daukagu, negoziazio honetan gai hau geldiarazten ez badugu, sinaduraren ondoren, langile gaixoei egindako presio hori ahal duten guztia areagotuko dutela.

ESK-k uste du langileen eskubide bat dela zentro pribatuetan proba diagnostikoak aurreratzea, gure errekupeazio-prozesuak arintzea, gaixotasunagatiko bajen inguruko aholkularitza eta gure osasunaren zaintza (urteko azterketa medikoak), eta eskubide hori ERABAT BORONDATEZKOA dela (langileen aukera bat izan behar du enpresari gaixotasun arruntagatiko bajetan sartzen ustea), baina Tubos Reunidoseko Zuzendaritzak betebeharroriek bete nahi ditu, derrigortzeetan eta zigorretan oinarrituta.

Gure salaketa zorrotzaren aurrean, zuzendaritzak argudiatu du dena borondatezkoa dela oraindik, **bakarrik osagarriak kentzen dizkigutela laguntzen ez badugu, baina gaixotasunean soldata jaisteko mehatxua egitea hertsapen-modu oso bortitza dela, askatasunarekin eta borondatezkotasunarekin zerikusi gutxi duena.**

Badakigu gai hau zuzendaritza honen apustu sendoa dela eta ez dutela apur bat ere lasaitzeko asmorik, aurre egiten ez baldin badiegu.

Hitzarmena negoziatzen ari gara, eta uste dugu unea dela TEBEX gure bizitzetatik botatzeko eta intimitaterako eta konfidentzialtasunerako dugun eskubidea berreskuratzea.

ESK-tik esaten diegu absentismoa murriztu nahi baldin badute, laneko segurtasunean eta osasunean gehiago inbertitu behar dutela.

Ildo horretan, ESK-k estrategia privatizazaile horiei aurre egiten jarraituko du, langileen intimitaterako eta pribatutasunerako eskubidea urratzen baitute.

Ez dugu horrelakorik onartuko, mozorratu arren eta ez dugu inoiz honen moduko eskubideen urraketa sindikalki justifikatuko duen ezer sinatuko.

Langileok gure osasunarekiko errespetuaren alde eta patronalarekiko eta mutualitateekiko erabat independentea den osasun publikoaren alde borrokatu behar dugu.

Enpresek gaixotasun arruntagatiko gure bajak kontrolatzea lortzen baldin badute, nork ziurtatuko digu behar bezala osatu ahal izango garela eta zenbait etikarik eta enpatiarik gabeko patronal gupidagabe batengandik babestuko gaituztela?